

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

3/2021 Mozioa, urtarrilaren 20koa, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren babesa adierazteko

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko urtarrilaren 20an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

3/2021 Mozioa, urtarrilaren 20koa, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren babesa adierazteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute saharar herriaren eta haren ordezkari zilegi den Fronte Polisarioaren borrokarekiko elkartasuna.

2. Arabako Batzar Nagusiek adierazten dute Marokoko Erresuma dela 1991eko su-etena urratu izanaren arduradun, bai eta sortu den ezegonkortasunaren ardura, Magreb osora hedatu daitekeen ezegonkortasuna, hain zuzen ere.

3. Arabako Batzar Nagusiek MINURSOri eta Nazio Batuei eskatzen diete berma ditzatela inguruko segurtasuna eta Saharako herritarren giza eskubideak, eta gehiago luzatu gabe sustatu dezala Mendebaldeko Saharako gatazkarako konponbide bidezko eta behin betiko bat, autodeterminazio erreferendum baten bidez.

4. Arabako Batzar Nagusiek Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari galdegiten diote bere ardurak onartu ditzala Mendebaldeko Saharan gertatzen den guztiagatik, izan ere, Marokoko legez kanpo okupatu duen lurralde ez autonomoa da, NBEren agindupean dagoena, eta gatazkan diren alderdiek Genevako konbentzioak sinatu dituztelako.

5. Arabako Batzar Nagusiek Espainiako Gobernuari exijitzen diote "de iure" potentzia administratzaile gisa duen erantzukizuna bere gain hartu eta horren arabera jokatu dezala, Saharako herriarentzat erreferendum bat lortzeko eta saharar zibilak babesteko alderdi aktiboa izanik.

6. Arabako Batzar Nagusiek euskal herritarrei eskatzen diete parte har dezatela Sahara Euskadi mugimenduak Fronte Polisarioaren ordezkarezekin batera Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari babesa adierazteko antolatzen dituen mobilizazioetan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA